



OINARRIZKO BALIABIDEAK

Oinarrizko baliabideak, enpresa batek aurrera ateratzeko behar dituen baliabide garrantzitsuenak dira. Hau da, beraiek gabe ez litzateke posible izango enpresa sortzea, hastea ezinezkoa izango litzatekelako. Lau mota bereiztu ditzakegu:

→ KAPITALA

Gure enpresa sortzeko, jarri behar dugun diru kantitatea da kapitala. Enpresa legezkatuta dagoen moduaren arabera, kantitatea bat edo beste izango da. Gure kasuan, kooperatiba eratzeko eta honek funtzionatzeko gutxieneko kapital soziala estatutuetan zehaztua izango da.



→ DIRU LAGUNTZAK

Eusko jaurlaritzak emango dizkigu, hauen abantaila nagusia, ez dira itzuli behar.



→ MAILEGUA

Gure enpresa sortzerako orduan diru-laguntzetaz gain, gure enpresa sortzeko behar adina diru ez badugu, banku batengana jo dezakegu. Banku batek uzten digun diru kantitatea da, baina zehaztutako denbora muga batean itzuli behar da. Gure kasuan zazpi urtetan egingo dugu. Gainera, interesak ordaindu beharko ditugu, utzi diguten diruaz gain, diru kantitate bat gehiago ordaindu behar dugulako. Komisioak ere badaude, mailegua ireki eta ixteagatik ordaindu behar dena, bakoitzagatik ehuneko bat ordaindu behar da. Gainera hauek lehenago ixten badituzu ehunekoia igo daiteke.



→ **INBERTSOREAK**

Aberastasunaren gastuari edo kontsumoari uko egiten dion pertsona da, etorkizunean errentagarritasuna lortzeko itxaropenarekin. Ez dago inbertitzailearen irudi orokorra, bere profila oso zabala izan daitekelako. Gure kasuan ez dugu edukiko, baina mota ezberdinak bereiztu daitezke. Bere gain hartzeko prest dauden arriskuaren arabera: profil kontserbadorekoak, profil ertaineko inbertitzaileak eta profil oldarkorrekoak daude.

